

Webguneak euskaraz dituzten enpresa gehienak Debagoienan daude

EUSTATEK ESKAINITAKO datuak dira. Hamar langile edo gehiagoko zenbat enpresek webgunea euskaraz daukaten neurtu du EAEko Euskal Estatistika Erakundeak. Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste, enpresen %44,8k dute euskaraz. Probintziei begiratuz gero, Gipuzkoan batez bestekoa %59,4 da, Bizkaian, %38,9 eta Araban %32,8.

Eskualdeei dagokienez, Gipuz-

koakoak dira nagusi: Debagoiena (%74,8), Goierri (%65,8) eta Urola Kosta (%63,5). Bizkaian batez besteko altuenak dituztenak Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroatik dira; lehenengoak %54,8 eta bigarrenak %53,6. Araban, Arabako Mendialdean enpresen %49,1ek dute webgunea euskaraz.

Hiriburuetako datuak berriz ondokoak dira: Donostia (%63,0), Bilbo (%42,4) eta Gasteiz (33,4).

Bahea

Elixabete Garmendia EITBko kazetariak *Euskonews & Median* esanak:



JUDIT FERNANDEZ

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Tubacex, “bake sozialaren” bila

ALTZAIRU HERDOILGAITZEKO hodiak egiten dituen eta arlo horretan munduko produktore nagusienetakoa den Tubacex enpresa arabarrak, akordioa sinatu du Kantabriako Gobernuarekin, Santander ondoan dagoen Marina de Cudeyo herrian lantegi berria eraikitzeko. Egoitza duen Aiala haranetik 100 kilometrorara, Araban fabrikatzen dituen hodien eraldaketa prozesuari ekingo dio Tubacexek. Enpresa berriak haran horretako langabezia arintzen lagundu zezakeen, EAEkoaren batez bestekoa baino larriagoa baita. Konpainiaren egoitza soziala Laudion dago eta %20,5eko langabezia tasa dute han. Ez daki gu zenbat lanpostu sortuko diren, baina badakigu Tubacexek Marina de Cudeyon 10.000 metro koadro erosi eta 37.000 metro koadro erreserbatu dituela.

Zergatik aukeratu du Tubacexek Kantabria? Diotenez, Kantabriako Gobernuak lurra merke eskaini dizkio, eta sindikatuekin “bake soziala” agindu dio, baita Arabakoak baino soldata baxuagoak ere. Tubacexek soldata kostuak murriztu eta lan-gatazkak saihestu nahi ditu nola edo hala.

Lakuako gobernuak, neoliberalismoaren kudeatzaile den neurrian, Enplegu kontseilariaren ahotik zera esan du: “Euskadik erakargarriago izan behar du Tubacex moduko kasuak ez errepikatuz”. Eta honakoa gaineratu du: “Lan-gatazkak txarrak dira ekonomia errentzat, enpresentzat, baita langileentzat ere”. Hau da, “Euskadi erakargarriago” egiteko, langileek ez lukete protestatu behar, ez aldarrikapen edo grebarik egin behar ere, eta klase kontzientziari uko egin beharko lioke. Eta sindikatuek “bake soziala” bermatu behar lukete. Edozein egunetan Tubacexek Aialako instalazioak desegin dituzte –metro koadro askotxo aurreikusi du Kantabrian– eta errudunak langileak izango dira gainera! Erruduna kapitalismo basati eta harrapakaria da, ahalik eta kostu gutxienarekin etekin handiena nahi baitu. Eta horretarako “bake soziala” izateko bermea eskatzen du... Hilerrietan baino ez dago hori!

Juan Mari Arregi



“EITBren jarrera nagusia gaztelaniazko katearen aldekoa izan da beti, bi kateak presente egin zirenetik, orain arte izan diren zuzendari guztiek ETB1en inguruan hitz arranditsuak bota dituzten arren, aurrekontuen portzentaje eta zenbaki ulertezinak tarteko. Ziurrenik, euskarazko inbertsioetako dirurik handienak futbol partiden eskubideak erosten xahutuko ziren!

Euskal telebista izena daraman medio batean lan egiten baduzu, nahiz eta gaztelaniazko katean izan, nola bete dezakezu ondo lana euskaraz berarekin daramatzen jakintza eta kultura ulertzeko gai ez bazara? Planteatuko al litzateke TVEn kazetariak espainiera ez jakitearen burugabekeria? Bada, hori ETBko zuzendari-tza guztiekin jazo da. (...) Ez dago preiorik euskara jakin gabe sartu den pertsonala euskalduntzeko”.

Tolosako Babarruna

Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

943 650 253
www.tolosakobabarruna.com